

ANOETA ANITZA: MUNDU BAT ANOETAN

• URTEKO KULTUR JARDUERETAN ANIZTASUNAREN IRIZPIDEA TXERTATU

Urtean zehar burutzen diren ekimenetan aniztasunaren irizpidea txertatu nahi dugu, herrian dagoen hizkuntza eta kultur aberastasuna bistaratzuz eta jatorri desberdinetako herritarren partaidetza bermatuz, adibidez:

- IPUIN KONTAKETAK HIZKUNTZA DESBERDINETAN:

- Ekuatore Gineako ipuinak eta jokuak: urriaren 27an antolatu genuen, liburutegian.
- “Amilami” ipuin kontaketa, Senegaleko musikarekin, azaroaren 17an antolatu genuen liburutegian-
- Ipuin kontaketa interaktiboak ingelesez antolatu genituen liburutegian, urritik abendura arte.

Saio hauek partaidetza handikoak izan dira, eta umeak oso gustura aritu dira.



- **HIZKI-MARRAZKI IPUIN MARRAZTUEN LEHIAKETA** (apirilean): Aurreko urteotan bezala, aurten ere jatorri desberdinetako guraso batzuk animatu ziren Ikastolan ipuinak kontatzen beren jatorrizko hizkuntzatan: Chadia Aiachi (Maroko), Hayat Adjar (Maroko) eta Richard Barrell (ingeleza). Ekimen polita da hau, haurrentzako oso interesgarria baita kalean ikusten dituen herritarrak beren jatorrizko hizkuntzan entzutea; eta, bestetik, jatorri desberdinetako herritarrei ilusio handia egiten baitie beraien hizkuntza plazaratzea eta ezagutaraztea hemen.



- **BERRIAK BERRI UDAL ALDIZKARIAN HAINBAT JATORRITAKO ANOETARRAK EZAGUTUZ ATALA:** Udalak aldizkari bat argitaratzen du lau hilez behin: otsailean, ekainean eta azaroan. Aldizkari honetan udal informazioa eta herriko eragileena argitaratzen da. Eta bertan *Hainbat jatorriko anoetarrak ezagutzuz* atalean jatorri desberdinetako anoetarrak elkarriketutzen ditugu. Generoaren irizpidea kontutan hartuz, emakumeak eta gizonak txandakatzen saiatzen gara.

2016ko aleetako elkarriketak esteka hauetan ikus daitezke:

Otsailekoa:

<http://www.anoeta.eus/documents/177689/479139/BBerri+59+otsaila+2016.pdf/c0a858c0-49fd-406b-b8eb-0ae06226710f>

Uztailekoa:

<http://www.anoeta.eus/documents/177689/479139/BerriakBerri+61+uztaila+2016.pdf/d5a7ee6f-00e5-4c3e-8073-f8217a058e9a>

Azarokoa:

<http://www.anoeta.eus/documents/177689/479139/Berriak+Berri+62.pdf/741cd53a-f278-4fa9-9a82-30f4c7c0be8f>

• GURETZAKO JATORRI DESBERDINETAKO EMAKUME TALDEA INDARTU

Aisialdia, entzun, sarea sortu, zalantzak argitu, tea hartu, filmak ikusi eta, azken finean, ingurune berrira egokitzeko eta elkarbanatzeko espazio bat da Guretzako. Emakume guztiei irekita baldin badago ere, protagonista nagusiak beste herrialdeetakoak izatea da gakoa. Lau talde daude Tolosaldean: Alegian, Villabonan, Alegian eta Anoetan.

Anoetaren kasuan, hilean behin elkartzen dira Tolosaldea Garatzenek kontratatutako dinamizatzaile baten gidaritzapean, eta 2016an parte hartu zuten herriko festetako Dantzari Txiki Eguneke mokadutxoan dastatzean (maiatzaren 22an) eta Emakumeen Nazioarteko Eguna eta Indarkeria Sexistaren Aurkako Egunaren harira antolatu genituen kafe-tertulietan (Josebe Iturriozek dinamizatuta) eta elkarretaratzeeetan.



• HARRERA PROTOKOLOA EGONKORTU

HARRERA SAIO INSTITUZIONALAK

Harrera saio instituzional pare bat egiten ditugu urtean zehar, 2016ko uztailaren 2an eta 2017ko urtarrilaren 28an, etorri berriak gertutik gertu ezagutzeko eta beraien kezak, zailtasunak, proposamenak edota iradokizunak jasotzeko, giro informal batean. Bide batez, herrian ditugun ekipamendu eta baliabideen berri ematen diegu, eta esaten diegu udaleko atak zabalik dauzkatela edozein zalantza argitu nahi izanez gero.

Egia esan, eskertzekoak dira saio hauek; kontaktu zuzena izateak asko laguntzen du elkar ezagutzen, konfidantza hartzen eta harremanak errazten. Hortaz, etorri berri batzuk adierazi digute benetan estimatzen dituztela bilera hauek, oso garrantzitsuak direla beraientzat, eta baloratuta sentitzen direla. Haientzat zerbait berria dela esan digute, egon diren beste tokietan ez zaiela horrelako harrerarik egin, herriko alkate eta zinegotziekin zuzenean, eta asko eskertu digute horrelakoak antolatzea.



SAHARAKO ETA ERRUSIAKO HAURRAK UDARAN

Errusiako haur bat eta Saharako bi haur etorri ziren udara pasatzera Anoetako familiekin. Harrera egin zien udalak, eta haurrei bono batzuk oparitu herriko dendetan gustuko zerbait erosteko. Aurretik, Oporrak Bakean programaren Tolosaldeko arduradunak azaldu zien ikastolako hainbat ikasleri nolakoa den Saharako haurren egoera, eta udaran Euskal Herrira ekartzearen garrantzia.





- **SEXU ANIZTASUNA LANDU**

“A ESCONDIDAS” FILMAREN PROIEKZIOA ETA SOLASALDIA

Homosexualitatea eta arrazakeriaren gaiak jorratzen ditu “A escondidas” filma. Ekainean proiektatu genuen auditorioan (Ekainak 28, Sexu Askatasunaren Nazioarteko Egunaren harira), ikastolarekin elkarlanean, DBH2-3-4ko ikasleentzat. Urtxintxak dinamizatu zuen gero solasaldia ikasleekin.